

## Nagore Legarreta, argazkilaria

# “BARRIKADAREN ALDE HONETATIK DATOZEN KOLPEEK SUTZEN NAUTE”

Nolakoak dira emakumeen arteko harremanak? Izan ote daitezke osasuntsuak, subjektu zapaldu diren heinean? Gisa horretako galderei tiraka aritu da Nagore Legarreta *Hysteron* proiektuan. Hamabi argazkiko erakusketa osatu zuen aurrena. Gero, idazle, dantzari eta musikariak batu ziren proiektura eta, azkenik, lata baten barruan argitaratu du material guztia. Proiektuaz ez ezik, argazkilaritza ulertzeko duen moduz ere aritu gara solasean.



**Kepa Matxain**

@kmatxain

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Hasten zara zerbaitekin jolasean, kuriositate hutsez, eta arituan-arituan ohar-tzen zara oso tresna baliagarria zaizula bestela adierazi ezingo zenituzkeenak adierazteko. Halako zerbait gertatu zaio Nagore Legarretari argazkilaritza esteno-peikoarekin. Lata-poto, paper fotosintetiko eta gainontzeko tramankuluak bilakatu zaizkio adierazpen modu. Haien bidez osatu du lengoia artistiko bat, gero eta bereagoa duena. Asteazken arratsalde batean, klaseak ematera sartu aurretik harrapatu dugu Hernaniko taberna batean, baffleatik euskal erreperitorio klasikoa ozen erortzen den bitartean.

**Orain lau bat urte ikusi omen zenuen argazki bat asko markatu zintuena. Hura izan al zen *Hysteron*en hazia?**

Koktelera bat da burua. Barruan zerbaitek burrunba egiten dizu, eta hasten zara horri erantzuteko gako bila. Argazki hura izan zen gakoetako bat. Emaku-

me gorputzak ageri ziren deformatuta, tenkatuta. Errealitatea deformatu zale izan naiz beti, eta irudiak asko erakarri ninduen. Gero, koktelari gehitu behar zaizkio nire egonezin pertsonalak, argazkiak lata potoeekin ateratzeko zaletasuna... eta azkenean *Hysteron* atera da.

**Oso pixkanaka mamitu da proiektua, hortaz.**

2009an hasi nintzen latekin argazkiak ateratzen. Gertatzen da askotan horrelako teknikak gelditzen direla artifizio hutsean: latekin argazkiak ateratzen dituzu, ados, oso ondo. Une batez argazki lanean zentratzeko beharra sentitu nuen, esateko neukan horretan. Proiektu koherente bat gauzatzen saiatu nintzen. Irungo Mosku auzoko jaietako erakusketara batera gonbidatu ninduten garai bertsean eraiki nuen aitaren laguntzarekin lau zulo-dun kamera bat. Lau zulo horien bidez, parean harrapatzen duenaren zatia fusionatzen ditu, eta ateratzen da

emaitza kubista samar bat. Kamera hori eraikinak konposatzeko erabili nuen or-dura arte, eta otu zitzaidan berdin balio zuela pertsonen gorputzak fusionatzeko. Konektatu nuen nire baitako ezinegon batzuekin, eta ideia horretatik tiraka igaro nituen bi urte irakurtzen eta argazkiak ateratzen. 2015eko maiatzean Oñatiko ARG! Argazki Festibalean aurkeztu nuen emaitza.

**Irudiaren mundua gero eta definizio zehatzagoaren bila dabil. Urte gutxitan igaro gara HDtik 4Kra edo 8Kra. Zuk, ostera, k.a. 500. urtetik erabiltzen den teknika darabilzu.**

Denborarekin ohartu naiz teknika horrek ematen didala definizio altuko argazkilaritzak ematen ez didan hizkuntza bat, oso nire egin dudana. Ez dut esan nahi argazki kamera digitala erabiltzen ez dakidanik, horretan egiten dut lan... baina kontua da kamera zerorrek sortzen baduzu, egin dezakeela zuk nahi



duzuna. Sortu dezakezu lau kamerako zulo zilindriko bat emakumeen gorputzak fusionatzen dituen. Jokoa ireki egiten da, formatua hautsi egiten duzu. Hori da zoragarria.

**Ez nuke teknika hutsean zentratu nahi, baina agian komeni da azaltzea *Hysteroneko* argazkiak ateratzeko erabili duzun kamerak zer ezaugarri dituen.**

Bost kiloko Arroyabe hegaluze lata da. Lau zulo dauzka –ipar-hego-mendebalde-ekialde-, eta, barruan, soldatutako erroskilla bat. Paper fotosintetikoa boro-robilean jartzen da bertan. Hernaniko

Iparragirre Sagardotegian teloi beltz bat jarri nuen, eta lagunak –denak emakumeak– gonbidatu nituen bazkaltzera. Gorputzekin figura batzuk planteatu nituen eta, ondoren, latako zulo bat ireki, argia sartzen utzi paperak irudia jaso arte, eta zuloa zintarekin ixten nuen. Segidan, lata jiratu, eta pauso berdinak jarraituz beste figura bat egiten nuen, lau orban lortu arte. Orbanak fusionatu egiten dira izkinetan, eta sortzen da irudien arteko tentsio bat. Batzuetan ematen du ari direla elkartu nahian, beste batzuetan elkarri bultzaka. Ez dakigu oso ondo zer den, gerra edo festa.

**Emakumeen arteko harremanei buruz ari da, funtsean.**

Neure buruarekin esplorazio garai batean nengoenean egin nituen argazkiok. Izan zen halako nerabezaro berantiar bat, munduan zeure tokia bilatzen duzuna, zuk zeure buruarekin eta, baita ere, zuk beste emakumeekin. Berraztertu nituen, besteak beste, familiarekin neuzkan harremanak. Txukunketa izan zen, agian ilun puntu batetik hasi zena, baina gerora oso sendagarria izan dena. Uste dut argazkilaritza –arte, orokorrean– norbere burua ezagutzeko tresna paregabea dela. *Hysteronek* umetokia esan nahi du grekeraz. Casilda Rodrigañezek aipatzen du liburu batean, nola Antzina-ko Greziako mito batek dioen histeria umetokitik datorrela. Eta teoria hori izan zen aitzakia handia eskala handiko sorgin erretze bat egiteko. Nire gogoeta da gaur egun badagoela sorgin-erretze bat, zoliagoa, ikusten ez dena, baina geure burua uzkurrazten diguna, hegoak mozten dizkiguna, antzutzen gaituena. Baina nolako harremanak sortzen dira berdin antzutatuko emakume horien artean? Izan al daitezke naturalak erabat garatuta eta ahaldunduta ez daudenen arteko harremanak? Lehiakorrek dira, agian?

**Horregatik irudien anbiguotasuna, dantzan ala borrokan ari ote diren zalantza hori.**

Horixe. Proiektuan parte hartu du, besteren artean, Danele Sarriugartek, eta idatzi du *Esklabuak dantzan* testua. Han egiten du paralelismo bat, azalduz nola esklabuek elkar akabatu ohi zuten, beren nagusiak akabatu aurretik. Hor zegoen nire amorrua: gauza bat da kolpeak barrikadaren bestaldetik etortzea. Baina barrikadaren alde honetatik datozen kolpeak sutan jartzen naute. Elkar-tasun loturak sortu beharrean, indarrak batu beharrean, etsaiari ondo apuntatu beharrean, ez ote ginen ari kontrakoa egiten sentitu izan dut beste emakumeekin pasatako esperientzietan.

***Hysteronek* balioko zizun diozun gai hori beste emakume batzuekin elkarbanatzeko.**

Proiektuan nabaritu dut joera bat emakumeen aldetik edukian sakontzekoa, eta gizonen aldetik, berriz, teknikan. Bauen beldur hori: gai hau nire harrika-

da bakarrik da? Edo beste emakumeek antzera sentituko dute? Eta bai, hitz egiten duzu beste emakumeekin, eta haiek ere sentitzen dute beste emakumeekiko beldur bat –norbere buruaren ganako beldurra dena, azken batean-. Asko dugu hor askatzeko eta lantzeko. Baina begira, adibidez, lehen aipatu dudana argazki saio hartan zortzi-bederatzi emakume egon ginen, biluzik, sagardotegi bateko pabilioi atzealdean, eguzkitan. Prozesu hori oso interesgarria izan zen. Hasieran hor zeuden betiko lotsak, gure kulturaren kontaktuari diogun beldur hori, baina zurruntasun hori pixkanaka bihurtu zen sekulako akelarrea, eta guztiok bukatu genuen errekan bainatzen. Baten batek esan zidan, “estu samar etorri naiz, baina etxera noa etorri baino askoz hobeto”. Horrek asko betetzen nau.

**Argazkiez harago doa *Hysteron*. Idazleak, musikariak eta dantzari bat ere batu dira proiektura.**

Argazkilari lana izan daiteke oso bakartia, eta gogoia neukan nire ziborrari begiratzeari utzi eta beste animo batekin ekiteko. Zorionez, nire inguruan sortzaila zoragarriak daude. Sarriugartez gain, Mariano Hurtado, Aida Torres, Beñat Iturrioz, Gorka Setien, Txaro Untzilla... denak dira ni bezalako *zikinbrillo* batzuk.

### Zikinbrillo?

(Barrez) Pentsatu izan dut manifestu bat idatzi beharko genukeela gure belaunaldiko zikinbrillook. Gauzak egiteko modu bat da, oso ezaguterraza: Amoranteren diskoaren azala, Akauzaztek atera zuena, Ramon Martinez Zabalegiren diseinu eta kartelak... *Do It Yourself* filosofia zehazgabetasunarekin nahasirik, edo horrelako zerbait. Hitz hori lehen aldiz aitari aditu nion. Hark txikitan esaten zidan ni nintzela zikinbrillo bat. Adibidez, bisitarekin bat espero genuelako logelako trasteak jasotzeko agintzen zidatenean, ohe azpian sartzen nituela. Halako garbitasun aparente bat. *Hysteronen* azken emaitza ikusi nuenean, urre koloreko lata hori, Okene Abregok eskuz idatzitako letra zatar horiekin eta, oro har, barruko zatarkeria horrekin guztiarekin, esan nuen: noski, hau da zikinbrillo estetika. Zakar puntu horrek, zikintasun horrek, akatsak... asko erakartzen nau.

» “Gaur egun badago sorgin erretze bat ikusten ez dena, baina geure burua uzkurrazten diguna, hegoak mozten dizkiguna, antzutzen gaituena”

**XX. mende amaieran artista askok esperimentatu izan du akatsaren estetikekin. Adibidez, musika elektronikoaren zenbat korrontetan, edo glitch art mugimenduan, akatsa ez da ezabatu beharreko zerbait. Prozesuan agertzen den unetik obraren parte da. Zure kasuan ere bai?**

Gakoa izaten da akats hori errepikatzea eta kontrolatzea. Nola ez naizen sekula izan argazkilaritzako ilustratu bat, ez teknikan, ez korronteetan, bilatu ditut labar-metodo horiek, ez nekielako gauzak beste era batera egiten. Ziur asko izango dira lanerako mila modu errazago, baina beti zailena eta aldrebesena erabili izan dut. Esaterako, lata-potoari papera ilunpetan aldatu behar zaionez, plastikozko poltsa baten barruan sartzen nintzen. Abuztuan, Marokon. Aitak pila petakarekin egindako lanpara gorri bat lepotik zintzililik nuela. Sartu zaitetz 40 gradurekin poltsa horren barrura. Izerdi patsetan hasten zara, izerdia erortzen da paperaren gainera, paper guztia ateratzen da orbanaz josita, eta orban horietako asko hatz-markak dira.

**Laneko esfortzua obran txertatzeko modu bat.**

Nik uste baietz. Agian norbaitek esango du horrek ez duela balio. Bai, baina ni gogoratzen naiz poltsarekin, eta pasatuko beroarekin, eta izandako zailtasun guztiarekin... eta horretaz gain, argazkiari zerbait ematen dio. Kendu beharrean, erantsi. Akats bat gertatzen zaizunean konturatzen zara agian balio dizula kontatu nahi zenuen zerbait kontatzeko. Orduan, errepikatu egiten duzu, eta garratu.

**Zure lanean pisu handia du zoriak. Artistak artefaktua prestatzen du, eta gero gerta bedi gertatzen dena...**

Bai, baina hori ez da nik asmatutako zerbait. William Kleinek, adibidez, aldarrikatzen du zoria, edo batere lotsarik gabe aitortzen du kamerari begiratu gabe enkoadratzen duela. Lan egiteko modu bat da eta, pentsatzen jarrita, ez da erabateko zoria ere. Gertatzen zaizun guztia ez da erabateko kasualitatea. Zuk markatzen duzu marko bat, eta horren barruan inprobisatzen duzu. Jazz musikan bezala, parametro batzuk markatzen dira, ea hor zer gertatzen den.

**Aurrerantzean ere lengoia horretan jarraitzeko asmoa al daukazu?**

Bai. *Hysteronekin* motxilatik harriak atera ditut, eta orain askoz arinago sentitzen naiz. Pentsa, koloretako argazkiak eta guzti ateratzen hasi naiz. Duela lauzpabost urte Indian argazki bidaia antolatzen hasi ginen, eta hara ez nuenez sekulako tramankulua eraman nahi, sortu nuen kamera bat pospolo kaxarekin egindakoa. Sartzen dut karrete bat, eta pintza batekin jiratuz, posible dut 20 bat argazki ateratzea, aldiro papera aldatzen ibili beharrean. Orain gogoia daukat bizitza ospatzen hasteko. Bizitza eta heriotza. Indian ikasi dudana bezala, dena bat da, eta heriotza ez da itzuri egin beharreko zerbait. Badago Dirty Three izeneko banda bat, Nick Cave-ekin biran ibili izan dena. Ba nik ere aurkitu dut nire Dirty Three-a, eta nahi dut jarraitu musika banda koskor bat osatzen argazki lan bat aurkeztean. Oraingoan, Indiako instrumentuekin. Hori bai, argazkiak Indiako folklorean erortzen ez diren bezala, haiek ere debekatuta dute hango musika jotzea. Beraz, batetik daukat Indiakoa. Bestetik, Urumea ibaiari buruzko lan bat egiten ari naiz. Latak uretan sartuta, erreka subjektu bihurtu nahi dut. Guk erreka ertzetik ikusten dugu beti, baina errekek nola ikusten gaitu gu? Hor ere musika banda bat osatu nahi nuke, ontziak eta ura nahastuta. Eta azkenik, Elodie Baffalio pianojole zuberotarrarekin beste proiektu bat egiten ari naiz, Pirinioen bi aldeak lotuko dituen. Bera ere beste zikinbrillo bat da: inprobisatzen ibiltzen da, eskuekin sokak jotzen ditu... Ez dadila epe luzeko proiekturik falta. Horrek mantentzen nau bizirik. ■